

Liburutegiaren erabiltzaile kopurua %91 igo da Zumaian

ZUMAIA. Urtebete da Udalak Alondegia eraberritu eta zabaldu zuela, kultur etxea herrigunean jarritz (lehen Forondara igo behar izaten zuten bizilagunek). Udalak urte honetako balantzea egin du eta 'herriko taldeek Alondegia bere' egin dutela jakinarazi du, hitzaldi, kontzertu, erakusketa, bilera eta bestelako ekitaldi ugari antolatuz. Honela, Oxford aretoan eginiko erakusketetatik urtebetean 10.000 ikusletik gora pasa dira. Liburutegiak ere arrakasta izan du eta %91 egin du gora erabiltzaile kopuruak. Eta liburutegiko txartela atera eta bazkide egin direnen kopurua hirukoiztu da, guztira 4.121 pertsona izanik.

Urteurrena ospatzeko ekitaldiak izango dira asteburuan Zumaian eta Jon Maiaren Gazta zati bat film dokumentala izango da ikusgai bihar, larunbatean eta igandean. Horrez gain, Xabier Irureta Forondako pintura tailerreko ikasle izandakoaren erakusketa zabalduko da. Ekitaldietan sarrera doakoa izango da, baina Jon Maiaren dokumentala bihar ikusteko gonbidapena jaso beharko da turismo bulegoan.